

Zientzia eta teknologia

Joxerra Aizpurua

Mexikoko Golkoko petrolio-ihesa, gero eta larriagoa

EDO INORK EZ DU EGIA ESATEN edo inork ez daki benetan zer gertatzen ari den. Ihesa gertatu eta gutxira, egunero 1.000 edo 2.000 petrolio tona isurtzen zirela esaten zen, baina une honetan gauza ziurra da egunero 4.000 tona gutxienez isurtzen direla. AEBetako hego-ekialdeko hainbat estatutako kostaldeetan nabaritzen hasi dira jada petrolio-orbanen eragina.



WWW.THEMARITIMEBLOG.COM

160 milioi tonatik gora isuri dira ekainaren 10era bitartean, eta amaiera ez da hurbil ikusten. Orain beste kezka iturri bat gehitu zaio lehengoari: zer gertatzen ari da itsas hondoan? Petrolioak urak baino dentsitate txikiagoa duenez, berez lurrazalera jotzen du, baina isuria 1.500 metroko sakoneran gertatu denez zientzialariek ez dakite ziur petrolioak zer portaera izango duen. Izan ere, zientzialariek hainbat sakoneratan petrolio-ibaiak detektatu dituzte urarekin nahastuta, eta erabat ezezaguna da ibai horiek zer eragin izango duten inguruko ekosistemetan.

Bakterio bidezko eguzki-panelak?

BAKTERIO PURPURA DEITUTAKOAK Lurrean sortutako lehen bizidunetakoak dira, eta funtsezkoak izan dira bizia garatu ahal izateko.

Bakterio hau ingurune urtsuetan bizi da: lakuetan, itsas hondoetan –koralezko arrezifeetan batez ere–..., eta beraren jarduerak aurrera eramateko eguzkitik hartzen du energia. Miami Unibertsitateko ikerlari



FADWEB.ORG

talde batek, Neil Johnsonen zuzendaritzapean, bakterioek eguzkiaren energia transformatzeko duten ahalmena aztertu eta panel fotovoltaikoetan nola aplikatu jakin nahi dute. Diotenez, bakterioek erakutsiko digute nola hobetu errendimendua, eguzkiaren energia elektrizitate bihurtzeko garaian.

Babeslea: iametza Interaktiboa

Izan daiteke chinkungunya epidemia bat Frantzian?

Aedes albopictus espezieko eltxoak, besteak beste, chinkungunya eta denge gaixotasun larriak transmititzen ditu, eta antza denez Marseillean inguruan detektatua izan da. 2004an Alpeetan ere detektatu zuten. Alarma guztiak piztu dira Frantzian.

<http://ttiki.com/14283> (Frantsesez)

Autismoaren ikerkuntzan aurrerapausoak

Hamaika estatutako 177 zientzialariek parte hartu duten lan baten berri eman da *Nature* aldizkarian. Bertan adierazi dutenez, autismoan eragina izan dezakete genomak gertatzen diren zenbait aldaketak, alegia, ADN zatiak galtzeak edota bikoizteak.

<http://ttiki.com/14284> (Frantsesez)

Marrubiak aproposak dira Lurretik at landatzeko

Hamarkada batzuk barru espazio-bidaia luzeak egingo direla aurreikusten da, eta dagoeneko dieta aproposak aztertzen ari dira horretarako. Purdue Unibertsitateko (Indiana, AEB) ikerlariek marrubiaren abantailak aipatu dituzte: energia gutxi eta mantenu-lan txikia behar dira marrubiak hazteko.

<http://ttiki.com/14286> (Gaztelaniaz)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16